BASERRITARROK ERE, AZAROAREN 29RA BEGIRA



Xabier Iraola Agirrezabala

Azaroaren 29an Madrilgo Kongresu eta Senaturako hauteskundeak ospatuko dira, eta harantz begira gaude baserritarrok ere. Agian gutako askorentzat urrutiegi geratzen diren hauteskundeak dira, baina —tamalez edo zorionez, hori irakurle bakoitzaren esku uzten dut— ukaezina da Madrilgo Kongresuak, eta hango gehiengo eta indar politikoen arteko akordioen ondorioz aterako den Gobernuak, zeresan handia duela baserritarren etorkizunean; datozen lau urteetan behintzat.

Alde batetik, estatu osorako onartu eta sustatzen den oinarrizko legedia Madrilen onartzen delako; sarri askotan oinarrizko legeditzat joz eta erkidego autonomoen eskumenak hankazpian jarriz, eta beste batzutan kontrako norabidean: berez onartu beharko zukeena, gustukoa ez denez, erkidego autonomoen eskuetan abandonatuz.

Azken urteotan abeltzainek pairatzen ari diren animalien gaitzen bata bestearen gaineko pilaketan argi asko ikusi dugu gauza gehienak Madriletik erabaki direla, aurrez esan bezala, estatuko oinarrizko legedia denaren aitzakian.

Hori bai, ederki asko ahazten dute —gipuzkoarron kasuan behintzat— Iparraldean gertatzen denak eragin zuzen eta azkarragoa duela gure sektorearengan, agian Andaluzian edo Valentzian gertatzen denak baino.

Bestetik, gure sektorean hain garrantzitsua den Europako Nekazaritza Politika Bateratuan (baserritarren artean PAC bezala ezagutzen dena), Madrilgo Gobernuak du, oraingoz, Europako erakunde ezberdinekin harremanak eta negoziazioak izateko ahalmen osoa. Gaitzekin gertatzen den bezala, eta irakurleak azkar asko ulertuko duen moduan, Euskadiko lehen sektoreak antza handiagoa du, administratiboki, Frantziako Iparralde edo Akitania Berriarekin edota Portugalgo iparraldeko sektorearekin —berriro diot— Andaluzia edota Mediterraneoko eskualdeetako sektorearekin baino. Eta honenbestez, gure sektoreak duen problematikari (anitza eta sakona baita) aurre egiterakoan, guk beharko genukeen PACaren ildoak eta tresnak zeharo ezberdinak dira, gure lagun andaluziarrek beharko zuketenarekin alderatuta.

Hau dena esanda, argi geratzen da Euskadiko baserritarrok ere gure errealitatea eta problematika Madrilgo Kongresura helarazteko ahots propioa behar dugula izan; lehen sektoreko errealitatea anitza eta ezberdina denez, proposamenak eta eskabideak ere ezberdinak izan behar dutelako, xinplifikazioaren aitzakian errealitate ezberdinak berdin trata ez ditzaten.

